

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

INGURUMENEO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

Oinarri arautzaileak, «Enpresen erronka klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatzu» izeneko programaren sariak emateko.

Diputatuen Kontseiluak, 2022ko otsailaren 8ko bileran, ondoko erabakia hartu zuen:

«Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere helburuen artean du ekonomia zirkularra sustatzea, lurraldeko enpresa eta gizarte ehunarekin lankidetzan. Horrela dago ezarrita, bai Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050 izenekoan (GKAABE-2050) (6.3. jarduera ildoan), bai Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorrean (BIR-5, BIR-6 eta BAL-1 ekintzak). Ekintza horietan ezarrita dago, aldi berean, Zuzendaritza Nagusiak bere jarduera gauzatzeko hauen laguntza izango duela: alde batetik, Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundearen laguntza, eta, bestetik, GK Recycling klusterraren laguntza. Azken erakunde hori berrerrabiltzen eta birziklapenaren arloko erakunde laguntzailea da, eta bertan daude ordezkatuta 51 eragile, horien artean enpresak, elkarteak, fundazioak, unibertsitate eta teknologia-zentroak eta ingurumen aholkularitzak eta ingeniariak. Gainera, eragile horietako batzuk erreferentziakoak dira sektorean, eta jardunbide egokien adibide dira praktika zirkularren aplikazioei eta berrikuntzari dagokienez.

Diputatuen Kontseiluak 2019ko azaroaren 12ko bilkuran onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa. Bertan, 48. helburu estrategikoa gisa hau dago ezarrita: «Gipuzkoarako ekonomia % 100 zirkularra sustatzea 2050erako». 51 helburuak, berriz, honako hau dio: «Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050 sustatzea (Gipuzkoa Klima, Naturklima)».

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa foru fundazio publikoa da, eta haren xedea da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari laguntza ematea GKAABE-2050 estrategia garatzeko orduan. Horretarako, klima aldaketa behatuko dute eta jarraipena egingo diote Gipuzkoan, eta ekonomia zirkularra eta energia trantsizioa oinarri duten programak sustatuko dituzte. Modu horretan, klima aldaketaren eraginei aurre egiteko erakundearen gaitasuna eta gaitasun teknikoak eta soziala bideratuko dute, eta trantsizio ekologikoa modu eraginkorrean gertatzeko beharrezkoa den eko-berrikuntza sustatu eta bizkortuko dute.

Trantsizio sozio-ekologiko horretan, ekonomia zirkularrean oinarritzen diren proiektuak sustatu eta bizkortu nahi dira enpresetan eta industrian. Proiektu horiei esker, enpresa horiek lehenagaien kontsumoa murriztu ahal izango dute (eta, ondorioz, lurraldeko enpresen ingurumen eragina eta klima eragina murriztu egingo da eta lehiakortasuna igo), eta, horrez gain, enpresa horien barneko eta kanpoko berrikuntza eta ekintzaitza gehiago sustatuko da. Ekonomia Zirkularra Euskadiko Industrian Diagnosti Txostenak (Ihobe, 2018) aditzera ematen duen bezala, Euskadiko industria arloan jardunbide zirkular egokiak ezartzearen on-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Bases reguladoras para la concesión de premios del programa «Retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular».

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de fecha 8 de febrero de 2022, adoptó el siguiente acuerdo:

«La Dirección General de Medio Ambiente tiene entre sus objetivos el del impulso de la economía circular en colaboración con el tejido empresarial y social del territorio. Esto queda establecido tanto en la Estrategia Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático 2050 (EGLCC-2050) (línea de actuación 6.3) como en el Plan Integral de Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2019-2030 (acciones REC-5, REC-6 y VAL-1). En dichas acciones se contempla, asimismo, que la Dirección General materialice su acción contando con el apoyo de la entidad Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa, como con el clúster GK Recycling, organismo de colaboración en materia de reutilización y reciclaje en el que se hallan representados 51 agentes, entre empresas, asociaciones, fundaciones, universidades y centros tecnológicos, y consultoras e ingenierías ambientales. Varios de estos agentes son además referencia sectorial y ejemplos de buenas prácticas en innovación y aplicaciones de prácticas circulares.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 12 de noviembre de 2019, aprobó el Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el que se recoge como objetivo estratégico n.º 48 «Impulsar una economía circular 100 % para Gipuzkoa en 2050», así como objetivo estratégico n.º 51 «Impulsar la Estrategia de Lucha contra el Cambio climático 2050».

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa es una fundación pública foral cuya misión es apoyar a la Dirección General de Medio Ambiente en el desarrollo de la EGLCC-2050, mediante la observación y seguimiento del cambio climático en Gipuzkoa y el impulso a programas de economía circular y de transición energética, favoreciendo la generación de capacidad institucional, técnica y social para hacer frente a los impactos del cambio climático y facilitando y acelerando la eco-innovación necesaria para una transición ecológica efectiva.

En dicha transición socio-ecológica se pretende impulsar y acelerar proyectos basados en economía circular a nivel empresarial e industrial que favorezcan no sólo la reducción en el consumo de materias primas por parte de dichas empresas, con la consiguiente minimización del impacto ambiental y climático y la mayor competitividad de las compañías del territorio, sino también el impulso a la innovación y el emprendizaje dentro y fuera de las mismas. Tal y como identifica el Informe Diagnóstico de Economía Circular en la Industria del País Vasco (Ihobe 2018), la implantación de buenas prácticas circulares en el ám-

doriorz lehengaiak % 6 aurrez daitezkeela kalkulatzen da, eta horrek 2.000 milioi euroko kopurua esan nahi du dirutan. Kontuan izaten badugu baliabideak eraztea eta kontsumitzea eta ondoren horiek hondakin gisa botatzea dela klima aldaketaren eta sistema naturalen gorabeheren erantzule garrantzitsuenetako bat, eragin horien aurka egiteko gakoak da ekonomia zirkularreko jarduerak eta proiektuak sustatzea enpresa eta industria sektorean.

Horregatik guztiagatik, eta ekonomia zirkularren arloan etorkizunean tokiko eko-merkatuan eragina izango duten zerbitzuak eta produktuak pentsatzera eta bultzatzera bideratutako enpresa- interesa pizteko eta erakartzeko, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeak «Enpresen Erronka Klima-Aldaketaren Aurkako Borrokan, Ekonomia Zirkularra Sustatuz» sarien 1 eta 2. edizioa deitu zuten 2020 eta 2021ean (56 eta 104 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2020an, eta 74 eta 84 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2021ean). Deialdi horien ostean, 2022an «Enpresen Erronka Klima-Aldaketaren Aurkako Borrokan, Ekonomia Zirkularra Sustatuz» sarien 3. edizioa proposatzen da. Abiapuntutzat 2021eko oinarri arautzaileen dokumentua hartuta, baina aurreko edizioan identifikatutako hobekuntza bat txertatuz, hau da, proiektuak ebaluatzen irizpideak guztira 4 bloketan multzokatzea eta, horrekin batera, puntuak banatzea.

Erabaki proposamenen jasotako dirulaguntzek ez dute estatutu laguntza izaera Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107 artikuluko 1 apartatuan xedatutako moduan.

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 16. xedapen gehigarriak ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da sari hauek emateko oinarri arautzaileak onartzea, halaber, emakida aurretiaz baimentzea, itzulketa eskatetik eta zehapenak ezartetik eratorritako eginkizunak, kontrol-eginkizunak eta administrazio-ahalak baliatzea dakarten gainerako eginkizunak.

Ondorioz, azaldutako guztiagatik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseilu honek

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeak baimentzea sari hauek emateko: «Enpresen erronka klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz» programako sarien 3. edizioa.

Bigarren. Oinarri arautzaileak onartzea Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeak emango dituen «Enpresen erronka klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz» izeneko programaren sariak emateko. Oinarri horiek erabaki honekin batera doaz eranskin gisa.

Hirugarren. Ahalmena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuari, emakida aurretiaz baimentzeko, itzulketa eskatetik eta zehapenak ezartetik eratorritako eginkizunak burutzeko, eta baita kontrol-eginkizunak eta administrazio-ahalak baliatzea dakarten gainerako eginkizunak ere.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek Donostian dauden Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

bito industrial del País Vasco tiene un potencial de ahorro en materias primas estimado de un 6 %, que en términos económicos asciende a unos 2.000 millones de euros. Si tenemos en cuenta que la extracción y el consumo de recursos y su posterior vertido como desecho, es uno de los principales responsables del cambio climático y de la alteración de los sistemas naturales, el impulso a actuaciones y proyectos de economía circular en el sector empresarial e industrial se muestran como una clave para combatir dichos efectos.

Por todo ello, y con el fin de incentivar y atraer el interés empresarial hacia la ideación e impulso de servicios y productos con futuro impacto en el eco-mercado local en materia de economía circular, la Dirección General de Medio Ambiente y Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa convocaron en 2020 y 2021 la I y II edición de los «retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular» (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 56 y 104, en 2020, y 74 y 84, en 2021). Tras ambas ediciones, se lanza la «III convocatoria de retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular», sobre un documento de bases reguladoras que sigue las mismas bases de la convocatoria 2021, pero introduciendo una mejora identificada en la anterior edición, consistente en agrupar en un total de 4 bloques los criterios de evaluación de los proyectos y, con ello, el reparto de puntos.

Los premios recogidos en la propuesta de acuerdo no constituyen ayuda de estado en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

Conforme a la disposición adicional 16.ª de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de estos premios, así como, la autorización previa de la concesión, las funciones derivadas de la exigencia del reintegro y de la imposición de sanciones, y las demás de control que comporten el ejercicio de potestades administrativas.

En consecuencia, por todo lo expuesto, a propuesta del diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y previa deliberación, este Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

Primero. Autorizar a la entidad Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa para el otorgamiento de la 3.ª edición de los premios del programa «Retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la economía circular».

Segundo. Aprobar las bases reguladoras para la concesión de premios del programa «Retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular» a conceder por la entidad Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa que se adjuntan al presente acuerdo como anexo.

Tercero. Facultar al diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la autorización previa de la concesión de los premios, para ejercer, en su caso, las funciones derivadas de las exigencias del reintegro y de la imposición de sanciones, así como las funciones de control y demás que comporten el ejercicio de potestades administrativas.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Hori horrela izanik, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio ere aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2022ko otsailaren 9a.—Alberto Arana Rod, idazkari teknikoa. (823)

ERANSKINA

Oinarri arautzaileak, «Enpresen erronka klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz» izeneko programaren sariak emateko lehiaketa publikoa arautzeko.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da «Enpresen erronka klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz» izeneko programaren sariak emateko baldintzak arautzea.

2. Parte-hartzaileak eta baldintzak.

Deialdia hauei zuzenduta dago:

— Proiektua Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzen duten pertsona fisikoak edo pertsona fisikoen taldeak, ekonomia zirkularren sektorean negozio berritzailearen ideia dutenak eta beren negozio ideia baliozkotzeko eta hari ekiteko interesa dutenak.

— Ekonomia zirkularren sektorean lan egiten duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko ETEak, hau da, berreskuratze, birziklapen eta berrerabilpenaren arloan lan egiten dutenak.

— Aurreko taldean ez dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko ETEak, beren erronkak edo arazoak konpondu nahi dituzten ekonomia zirkularrean oinarrituriko neurrien edo soluzioen bidez.

ETEen definizioa Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasota dago.

Erakunde horiek ezingo dute egon Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetako batean ere.

3. Proposamenak aurkeztea.

1. Eskaerak aurkezteko epea izango da aurtengo deialdian ezartzen dena. Epea kontatzen hasiko da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik.

Eskaerak internet bidez aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bidez egingo da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), eta horretarako bereziki gaituriko inprimakia bete beharko da.

2. Nortasunik gabeko pertsona fisikoen taldeen kasuan, eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenaren berariaz jasoko beharko dira elkarteak kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak, bai eta bakoitzari aplikatu beharreko sariaren zenbatekoa ere, hori ere pertsona onuraduntzat hartuko baita. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, nahikoa ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko. Taldea ezingo da desegin harik eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 37. eta 54. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igaro arte.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 9 de febrero de 2022.—El secretario técnico, Alberto Arana Rod. (823)

ANEXO

Bases por las que se regula el concurso público para la concesión de premios del programa «Retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular».

1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones de concesión de los premios del programa «retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular».

2. Participantes y requisitos.

La convocatoria está dirigida a:

— Personas físicas o grupos de personas físicas que desarrollen el proyecto en el Territorio Histórico de Gipuzkoa con una idea de negocio innovadora en el sector de la economía circular y con interés en validar su idea de negocio y emprender.

— PYMES del Territorio Histórico de Gipuzkoa que operan en el sector de la economía circular: recuperación, reciclaje, reutilización.

— PYMES del Territorio Histórico de Gipuzkoa que, aun no perteneciendo al grupo anterior, busquen resolver retos o problemática propia a través de medidas o soluciones basadas en economía circular.

La definición de PYME está recogida en el anexo I del Reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión.

En ambos casos las personas físicas y/o jurídicas no podrán estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Presentación de las propuestas.

1. Las solicitudes se presentarán en el plazo establecido en la convocatoria del año en curso a contar desde la publicación de la misma en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presentación vía internet de solicitudes se realizará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), y se cumplimentará el formulario específico habilitado a tal efecto.

2. Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe del premio a aplicar por cada uno de ellos, que tendrá igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 37 y 54 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

3. Eskaera bakarra aurkeztuko da, eta eskaera horrekin batera aurkeztu behar da deialdian ezartzen den dokumentazioa. Dokumentazio hori sartuko da aplikazio informatikoan, erantsitako dokumentu gisa.

4. Sariak.

3 Proposamenik sendoenak hauek jasoko dituzte:

– Zuzeneko saria eskudirutan, 15.000 eurokoa.

– Hornituriko informatikako gunea eta tokia Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeko ekonomia zirkularraren hub-ean, fundazioan eskuragarri dauden zerbitzuetarako sarbidearekin batera: erreprografia, komunikazioak, internet, etab., proiektua gauzatzeko.

Zuzkidurari atxikipen ekonomikoa egingo zaio, Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera.

Sariaren helburua izango da enpresak proiektua edo proposamena ezartzea bere instalazioetan. Gainera, hornituriko laneko gune bat izango du (informatikako gune bat), Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioko egoitzan bertan dagoen ekonomia zirkularreko hub-ean (Miramon Parke Teknologikoa), proiektua gauzatzeko den bitartean.

5. Ebaluazio batzordea.

Ebaluazio batzorde bat izendatuko da:

– ETEek aurkezturiko proposamenak baloratzeko, bai erronka, bai proposaturiko soluzioa.

– Batzorde hori osatuko dute Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeko talde teknikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariak.

Batzordeak erabaki dezake sariak eman gabe uztea, hautagaiek ez badute eskatzen den kalitatearik. Hori behar bezala arrazoitu beharko da.

6. Instrukzioa.

Sari horiek emateko prozeduraren instrukzioa Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundeko talde teknikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko teknikariak egingo dute.

Ofizios egingo dira ebazpen proposamena egiteko erabili behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen diren jarduketak guztiak.

7. Sariak ematea.

Sariak emateko prozedura lehia izango da, Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioaren patronatuak eginiko deialdiaren bidez.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioko patronatuaren deialdian hainbat gai zehaztuko dira: aurkezteko epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, ebaluazio batzordearen osaketa eta aurrekontu kredituak.

Aukeraketa egiteko printzipio hauek hartuko dira aintzat: publikitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, koherentzia eta diskriminaziorik eza.

Ebaluazio batzordeak balorazio irizpide hauek hartuko ditu kontuan aurkezturiko proiektuak ebaluatzerakoan:

3. Se presentará una única solicitud, que irá acompañada de la documentación que se establezca en la convocatoria, incorporándola en la aplicación informática como documentos anexos.

4. Premios.

Las 3 candidaturas ganadoras recibirán:

– Premio en metálico de 15.000 €.

– Puesto informático equipado y espacio en el hub de economía circular de la entidad Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa con acceso a los servicios de voz, datos y reprografía, así como a sala de reuniones y sala de videoconferencias para materializar el proyecto.

La dotación económica estará sujeta a la retención fiscal que establezca la normativa en vigor en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El premio económico estará destinado a que los/las ganadores/as puedan implementar el proyecto o propuesta en sus instalaciones, contando además con un espacio de trabajo equipado (1 puesto informático) en el hub de economía circular en la propia sede de la fundación Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa en el parque tecnológico de Miramón durante la ejecución del proyecto.

5. Comité de evaluación.

Se designará un comité de evaluación:

– Para valorar las propuestas presentadas, tanto el reto como la solución planteada.

– Este comité estará formado por el equipo técnico de la entidad Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y técnicos de la Dirección General de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El comité podrá declarar desierto cualquiera de los premios si las candidaturas no alcanzasen la calidad exigida, siendo debidamente motivado.

6. Instrucción.

La instrucción del procedimiento de concesión de estos premios se realizará por el equipo técnico de Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y técnicos de la Dirección General de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Se realizarán de oficio cuantas actuaciones se estimen necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

7. Concesión.

El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria del patronato de la Fundación Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa.

En la convocatoria del patronato de la fundación Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa se concretarán las cuestiones relativas al plazo de presentación, documentación a presentar, composición del comité evaluador y la cuantía de los premios.

La selección se llevará a cabo conforme a los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, coherencia y no discriminación.

El comité evaluador tendrá en cuenta los siguientes criterios y baremos de valoración a la hora de evaluar los proyectos presentados:

– Berrikuntza zirkularra (40 puntu bitarte).

Planteatzen den erronkari irtenbidea emateko gaitasuna, proposamenaren alderdi teknikoak zehaztuz (kalitatea eta bideragarritasun teknikoak) eta horrek dituen ezaugarri bereizleak zehaztuz.

Halaber, proiektuak ekonomia zirkularren printzipioekin duen garrantzia eta lotura ebaluatuko da, eta ekintzak lehenetsiko dira Europako hondakinen hierarkian (2008/98/EE Zuzentaraua) ezarritako irizpideen arabera:

- Prebentzioa.
- Berrerabiltzea.
- Birziklatzea.
- Balorazioa (energiaren antzeko helburuetarako).
- Ezabatzea.

Ekodiseinuko ekimenak eta proiektuak hondakinen prebentzioaren kategorian sartuko dira.

Irizpide honen arabera, enpresen arteko lankidetzara ere baloratuko da, hau da, hainbat eragilek batera egiten dituzten proiektuen proposamenak. Azken alderdi honi gehienez 3 puntu emango zaizkio.

– Negozio eredia eta bideragarritasun ekonomikoa (20 puntu bitarte).

Enpresa-ereduaren kalitatea eta koherentzia bere balio-proposamena monetizatzeko (nola lortzen duen itzulkin ekonomikoa), eta argi eta garbi identifikatzea beharrezko baliabideak, gastuen egitura eta diru-sarreraren iturriak, bideragarria eta ekonomikoki jasagarria izan dadin.

– Ekintzaileen taldea eta orientazioa (20 puntu bitarte).

Talde ekintzailearen kualifikazioa (sektorean esperientzia izatea, trebetasunen oreka, profil ekintzailea, merkatuaren eza-gutza, lidergo-gaitasuna, proiektua aurrera eramateko motibazioa), eta talentu ekintzailea negozioaren ideia garatzeko zenbateraino sartu eta dedikatu den. ETEen kasuan, enplegatuek ideia berriaren garapenean zuzenean parte hartzea baloratuko da, bereziki proposamena enplegatuengandik berengandik etorriko balitz, eta lanpostu berriak sortzea, ETEtik kanpoko pertsona ekintzaileak sartuz ideia garatzeko.

– Lurraldean duen eragina (20 puntu bitarte).

Proiektuaren eragina eta onurak Gipuzkoako Lurralde Historikoan, ingurumenari (klima-aldaketaren aurkako borroka), gizaritari eta ekonomiari dagokienez.

Saria emateari edo, hala badagokio, saria ez emateari buruzko erabakia Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa Fundazioaren patronatuari dagokio, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta beste hedabide batzuetan emango da argitara.

Ebazpena emateko eta argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

8. Sariak ordaintzea.

Sarien zenbateko ekonomikoa ordainduko zaie enpresa onuradunei, saria emateari buruzko erabakia jakinarazi eta berehala, betiere deialdiaren ekitaldian barrena. Saria ETE interesdunaren izenean dagoen bankuko kontuan ordainduko da, eta indarreko araudiak ezarritako atxikipena egingo zaio.

9. Proiektuaren garapena.

Sariak eskuratzen dituzten erakundeek 9 hilabeteko epea izango dute beren instalazioetan proiektua garatzeko. Horretarako, beren baliabide propioak eta azpiegitura edukitzeaz gain, Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de

– Innovación circular (hasta 40 puntos).

Capacidad para dar solución al reto que se plantea, detallando los aspectos técnicos de la propuesta (calidad y viabilidad técnica) y especificando los atributos diferenciadores de la misma.

También se evaluará la relevancia y relación del proyecto con los principios de la economía circular, priorizando las acciones según los criterios marcados en la jerarquía europea de residuos (Directiva 2008/98/CE):

- Prevención.
- Reutilización.
- Reciclado.
- Valorización (para fines como el energético).
- Eliminación.

Las iniciativas y proyectos de Ecodiseño se considerarán en la categoría de prevención de residuos.

Bajo este criterio se valorará también la colaboración interempresarial, es decir, aquellas propuestas de proyectos que se realicen conjuntamente entre varios agentes. Este último aspecto se valorará con un máximo de 3 puntos.

– Modelo de negocio y viabilidad económica (hasta 20 puntos).

Calidad y coherencia del modelo empresarial para monetizar su propuesta de valor (cómo obtiene el retorno económico), identificando claramente los recursos necesarios, estructura de gastos y fuentes de ingresos para hacerlo viable y sostenible económicamente.

– Equipo y orientación emprendedora (hasta 20 puntos).

Cualificación del equipo emprendedor (experiencia en el sector, equilibrio de habilidades, perfil emprendedor, conocimiento del mercado, capacidad de liderazgo, motivación para llevar adelante el proyecto), y grado de incorporación y dedicación de talento emprendedor al desarrollo de la idea de negocio. En el caso de las PYMEs, se valorará la participación directa de empleados en el desarrollo de la nueva idea, de forma especial si la propuesta partiera de los propios empleados, así como la generación de nuevos puestos de trabajo, incorporando a personas emprendedoras ajenas a la PYME para el desarrollo de la idea.

– Impacto en el territorio (hasta 20 puntos).

Impacto y beneficios del proyecto para el Territorio Histórico de Gipuzkoa en términos medioambientales (lucha contra el cambio climático), sociales y económicos.

La resolución sobre la concesión, o, en su caso, denegación corresponderá al patronato de la Fundación Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa, y será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y otros medios de difusión.

El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de dos meses computados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

8. Pago de los premios.

El abono del importe económico de los premios se realizará inmediatamente después de la comunicación de la resolución de concesión a los beneficiarios y beneficiarias siempre durante el ejercicio de la convocatoria. El premio se abonará en la cuenta bancaria a nombre de la persona física o jurídica ganadora y estará sujeto a la correspondiente retención establecida por la normativa vigente.

9. Desarrollo del proyecto.

Los/las beneficiarios/as de los premios dispondrán de un plazo de 9 meses para desarrollar el proyecto en sus instalaciones. Para ello, además de contar con sus propios recursos e infraestructura, contarán con el apoyo de Gipuzkoako Aldaketa

Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioaren laguntza ere izango dute, lanerako gune bat izango baitute fundazioaren egoitzan, eta hango zerbitzutarako sarbidea.

9 hilabeteko epe horretan, enpresek harreman estua izango dute Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioarekin, eta 3 hilabetearen behin txosten labur bat egingo dute proiektuaren egoere berri emateko.

Erronkei emaniko soluzioek ez dute zertan oinarri teknologikodunak bakarrik izan beharrik, eta, era berean, helburu bakarra ere ez da originaltasuna. Soluzio horiek enpresak duen erroka konpondu behar dute, eta errepikagarriak izan behar dira arazo berak dituzten sektoreko beste enpresa batzuetan.

10. Zabalkuntza eta publikitate, eta jabetza intelektua- ren eskubideak.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioak eta deialdiaren ebaluazio batzordeak hitza ematen dute aurkezturiko hautagaien konfidentzialtasuna bermatuko dutela prozesu osoan barrena.

Parte-hartzaileek oinarri arautzaile hauek onartzeak dakar Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioak publikitate eta zabalkuntzaren arloko jarduerak egiteko baimena izatea, soilik deialdiarekin loturiko informazioari dagokionez.

Proiektuaren eskubideak eta haren edukiak, ETEan ezartzeko fasean garatu direnak, enpresa bakoitzarenak izango dira. Hala ere, horiek, gainera, lorturiko emaitzak zabaltzeko lanak ere egin ditzakete.

Sarituak izan direla iragar dezakete saria jaso dutenek, egoera hori adieraziz idazpuru, iragarki eta memorietan. Era berean, sariak jaso izana zabaldu edo argitara dezakete edozein komunikabidetan.

11. Datu pertsonalak tratatu eta babestea.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa betez, jakinarazten da datu horiek tratatzearen arduraduna Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioa dela, eta datu horiek tratatuko direla helburu hauekin: modu administratiboan kudeatzea lehiaketa honen fase guztiak, bai eta dagozkion sariak ematea ere, egonaldia Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioaren egoitzan, eta lehiaketarekin loturiko komunikazio, informazio eta sustapeneko gainerako eginkizunak, oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako baldintzak betez.

Informazio hori Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioak tratatu eta gordeko du, legez eska daitezkeen segurtasun neurrien bidez. Segurtasun neurri horiek teknikoak eta antolaketari dagozkionak izango dira, eta informazioaren segurtasuna bermatuko dute, hau da, bermatuko dute informazio hori ez aldatzea, ez galtzea, edo baimenik gabe ez tratatzea edo eskuratztea. Teknologiareneko egoeraren eta datuen izaeraren arabera eta datuek izan ditzaketen arriskuen arabera tratatu eta gordeko da informazioa.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioak datuak gordeko ditu lehiaketako partaidetza kudeatzeko beharrezkoa den denboran. Ez dizkie datu horiek hirugarren batzuei jakinaraziko.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen eramangarritasunerako aurreikusten diren eskubideak gauza ditzakete, eta, era berean, datuak tratatzea muga-

Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa a la hora de disponer de un espacio de trabajo en la sede de la fundación y acceso a determinados servicios (voz, datos, reprografía) y espacios (sala de reuniones y sala de videoconferencias).

Durante ese periodo de 9 meses los/las ganadores/as mantendrán un contacto fluido con Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y cada 3 meses emitirán un breve informe sobre el estado del proyecto.

Las soluciones a los retos no tienen por qué ser exclusivamente de base tecnológica, ni exclusivamente se busca la originalidad, sino que resuelvan el reto planteado por los participantes y que tenga un impacto positivo en el Territorio.

10. Difusión y publicidad y derechos de propiedad intelectual.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y el comité de evaluación de la convocatoria se comprometen a mantener la confidencialidad de las candidaturas presentadas durante todo el proceso.

La aceptación de las presentes bases reguladoras por parte de los/las participantes conlleva la autorización expresa para la realización de actividades de publicidad y difusión, por parte de Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa, con fines informativos relacionados únicamente con la convocatoria.

Los derechos del proyecto y sus contenidos, desarrollados durante la fase de implementación, pertenecerán a cada una de las personas físicas o jurídicas ganadoras, sin perjuicio de que éstas puedan realizar además labores de difusión de los resultados obtenidos.

Los/las galardonados/as podrán hacer publicidad de dicha condición en membretes, anuncios y memorias, así como difundir o publicar la concesión de los premios en cualquier medio de comunicación.

11. Tratamiento y protección de datos personales.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se informa que la responsable del tratamiento de dichos datos es Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y que éstos serán tratados con el objeto de gestionar administrativamente todas las fases del presente concurso, así como la entrega de los pertinentes premios, la estancia en la sede de Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa y demás labores de comunicación, información y promoción asociadas al concurso, en los términos previstos en las presentes bases reguladoras.

Esta información será tratada y custodiada por Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa a través de las medidas de seguridad, legalmente exigibles, de índole técnica y organizativa que garanticen la seguridad de la misma, evitando su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado de conformidad con el estado de la tecnología y la naturaleza de los datos y los posibles riesgos a los que estén expuestos.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa conservará los datos durante el periodo de tiempo necesario para la gestión de la participación en el concurso, no comunicando dichos datos a terceros.

Las personas interesadas pueden ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad previstos, así como la limitación u oposición a su tratamiento dirigiendo una

tzeko edo datuak tratatzearen kontra egiteko eskubidea ere, eskaera bat zuzenduz Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa erakundera, deialdiaren oinarrietan adierazitako edozein bide erabiliz (aurrez-aurrekoak edo digitalak).

12. Informazio osagarria.

Informazio gehiago nahi izanez gero edo deialdiari buruzko zalantzak argitzeko Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa fundazioari zuzenean galde dakiok:

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa (Naturklima).

Mikeletegi Pasealekua, 65 - B2 eraikina. 0 Solairua. 20009 Donostia.

Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik - 15:30era.

Posta elektronikoa: m.iglesias@naturklima.eus.

Telefonoa: 943.005.085.

Web: <https://www.naturklima.eus/>

13. Araubide juridiko aplikagarria.

Oinarri hauetan aurreikusitakoaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua aplikatuko da.

Oinarri hauetan araututako sariak ez dira estatuko laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak 107. artikuluko 1. puntuan xedatutakoaren arabera, estatu kideen arteko merkataritza trukatzeei ez baitiete eragiten. Izan ere, diruz lagundu daitezkeen jarduerak tokiko izaera nabarmena daukate eta laguntza horien onuradunak tokiko erakundeak izango dira, euren eskumen propio eta legitimoen barruan, interes orokorrean oinarritu behar dira.

solicitud a Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa por cualquiera de los medios descritos en las bases de la convocatoria (presenciales o digitales).

12. Información adicional.

Para más información o resolución de dudas sobre la convocatoria se podrá consultar directamente con Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa:

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa (Naturklima).

Paseo Mikeletegi, 65 - Edif. B2 Planta 0. 20009 San Sebastián.

Horario: Lunes a viernes 8:00 - 15:30.

Correo electrónico: m.iglesias@naturklima.eus.

Teléfono: 943.005.085.

Web: <https://www.naturklima.eus/>

13. Régimen jurídico aplicable.

Además de lo previsto en las presentes bases, será de aplicación, la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Los premios regulados en las presentes bases no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no afectan a intercambios comerciales entre Estados miembros. Las actuaciones tienen un marcado carácter local y las entidades beneficiarias serán entidades de carácter local que desarrollan actuaciones de interés público y no una actividad de naturaleza económica, de forma que la finalidad de las ayudas no es favorecer a una empresa o sector específico, sino aportar beneficios a la sociedad en general.



1.1 ERANSKINA / ANEXO 1.1

“Klima aldaketaren aurkako enpresa erronkak ekonomia zirkularra sustatzearen bidez” izeneko programaren sariak emateko lehiaketa publikoa arautzeko.

Concurso público para la concesión de premios del programa “retos empresariales en la lucha contra el cambio climático a través de la promoción de la economía circular”.

ESKAERA / SOLICITUD

PERTSONA JURIDIKOAK

DATUAK / DATOS

Sozietatearen izena Denominación social			
IFK CIF		Posta Kodea Código Postal	
Lantokia / egoitzaren kokapena Dirección de la planta o sede			
Herria Localidad		Probintzia Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Pertsonaren izena Nombre de la persona		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Probintzia Provincia	
Herria Localidad		Telefonoak Teléfonos	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	

BESTE DATU BATZUK / OTROS DATOS

GK Recycling-eko kidea Pertenenencia a GK Recycling	BAI SI	EZ NO
--	-----------	----------



ESKAERA / SOLICITUD

PERTSONA FISIKOAK

DATUAK / DATOS

Eskatzailearen izena Nombre del solicitante			
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección			
Herria Localidad		Probintzia Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	

PERTSONA TALDE BAT BADA / EN CASO DE TRATARSE DE UN GRUPO DE PERSONAS:

ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE

Pertsonaren izena Nombre de la persona			
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección			
Herria Localidad		Probintzia Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	

BESTE DATU BATZUK / OTROS DATOS

GK Recycling-eko kidea Pertenenzia a GK Recycling	BAI SI	EZ NO
--	-------------------	------------------



1.2 ERANSKINA

PROIEKTUAREN FITXA

BERRIKUNTZA ZIRKULARRA (40 puntu bitarte)

Planteatzen den erronkari irtenbidea emateko gaitasuna, proposamenaren alderdi teknikoak zehaztuz (kalitatea eta bideragarritasun teknikoak) eta horrek artearen egoerarekiko dituen ezaugarri bereizleak zehaztuz.

Gehieneko luzapena: 1.000 hitz

NEGOZIO EREDUA ETA BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA (20 puntu bitarte)

Enpresa-ereduaren kalitatea eta koherentzia bere balio-proposamena monetizatzeko (nola lortzen duen itzulkin ekonomikoa), eta argi eta garbi identifikatzea beharrezko baliabideak, gastuen egitura eta diru-sarreraren iturriak, bideragarria eta ekonomikoki jasangarria izan dadin.

Gehieneko luzapena: 1.000 hitz

EKINTZAILEEN TALDEA ETA ORIENTAZIOA (20 puntu bitarte)

Talde ekintzailearen kualifikazioa (sektorean esperientzia izatea, trebetasunen oreka, profil ekintzailea, merkatuaren ezagutza, lidergo-gaitasuna, proiektua aurrera eramateko motibazioa), eta talentu ekintzailea negozioaren ideia garatzeko zenbateraino sartu eta dedikatu den. ETEen kasuan, enplegatuek ideia berriaren garapenean zuzenean parte hartzea baloratuko da.

Gehieneko luzapena: 1.000 hitz

LURRALDEAN DUEN ERAGINA (20 puntu bitarte)

Proiektuaren eragina eta onurak Gipuzkoako Lurralde Historikoan, ingurumenari (klima-aldaketaren aurkako borroka), gizarteari eta ekonomiari dagokienez.

Gehieneko luzapena: 1.000 hitz



ANEXO 1.2

FICHA DEL PROYECTO

INNOVACIÓN CIRCULAR (hasta 40 puntos)

Capacidad para dar solución al reto que se plantea, detallando los aspectos técnicos de la propuesta (calidad y viabilidad técnica) y especificando los atributos diferenciadores de la misma con respecto al estado del arte.

Extensión máxima 1.000 palabras

MODELO DE NEGOCIO Y VIABILIDAD ECONÓMICA (hasta 20 puntos)

Calidad y coherencia del modelo empresarial para monetizar su propuesta de valor (cómo obtiene el retorno económico), identificando claramente los recursos necesarios, estructura de gastos y fuentes de ingresos para hacerlo viable y sostenible económicamente.

Extensión máxima 1.000 palabras

EQUIPO Y ORIENTACIÓN EMPRENDEDORA (hasta 20 puntos)

Cualificación del equipo emprendedor (experiencia en el sector, equilibrio de habilidades, perfil emprendedor, conocimiento del mercado, capacidad de liderazgo, motivación para llevar adelante el proyecto), y grado de incorporación y dedicación de talento emprendedor al desarrollo de la idea de negocio. En el caso de las PYMEs, se valorará la participación directa de empleados en el desarrollo de la nueva idea.

Extensión máxima 1.000 palabras

IMPACTO EN EL TERRITORIO (hasta 20 puntos)

Impacto y beneficios del proyecto para el Territorio Histórico de Gipuzkoa en términos medioambientales (lucha contra el cambio climático), sociales y económicos.

Extensión máxima 1.000 palabras